

# BEZEROAK



Aurreko atalean aipatu bezala, gure bezeroak ezgaitasunak daukatenak, pertsona nagusiak edota erosketak egiteko arazoren bat daukaten pertsonak dira. Ez dugu segmentazio konkretu bat zehaztu, hau da, ezgaituak direnak edo zailtasunak dituzten pertsonen erosketak egiterako orduan guztiei era berdinean emango zaie zerbitzua.

Erabiltzaile guztiak edukiko dute tratu berdina izateko eskubidea. Egia da, itsu bati ezin diogula hanka motz baten antzeko tratua eman baina orokorrean guztiekin antzeko harremana edukiko dugu. Beraz, gure proiektua oso erabilgarria izan daiteke laguntza eskeintzen diegulako eta horrela haien bizitza errazten diegulako erosketak egiterako orduan.